

## Hitza

**G**ogoratzen naiz *Berriako Gira* atalean egunero aritu zeneko Xabier Lekuonaren lehen zutabeaz, Espainiako –nonbait– bati buruz, non arrotz sentiarazi zuten pauso bakoitzean, bera pozten zuen zerbait, bera espainiarra ez, euskalduna delako, eta zioen: “Ondoko autoei ez bezala isuna jarri diote nireari, agian matrikula oraindik SSz hasten delako edo”. Gurea ere bai; eta lau urte darma Madrilgo bazter guztietan aparkaturik, batere isunik gabe. Izatez, espainiar selekzioak mundiala irabazi zuenean, bertan nindoan, kanariar bat gidari, Madril erdialdetik Alcobendas-eraino, SSz, eta denek jo ziguten bozina garaipena ospatzeko, espainiar gizonak espainiar neskekin bezain matxista izan ziren gurekin “¡Por España, enseñanos las...”. Are gehiago, noizbait nirekin ligatu nahian zebiltzala iruditu zait, euskalduna naizela jakinik! Sei urte Madrilen eta “arrazista” zenbait bai, topatu dut, ABCren bertsioetik mugitzen ez denik, baina gainerakoan euskaldunekiko kuriositate gehiago erakutsi dute nik inoiz herrialde konkretu baten inguruan erakutsi dudana baino, baita euskararekiko ere, baina “seme-alabekin euskaraz hitz egin, eta erasota sentitu direla nabaritu” zuen zutabegileak. Eta oraindik gogoratzen dut zutabea zur eta lur utzi ninduelako. Euskaldun zenbaitek ere ordea, ez da euskalduntzat beren naziokide kontsideratzen ez dituztela, Nafarroatik beherakoei euskaldunei buruz gezurak esatea egozten dieten egunkari berberak Espainiaz eta Madrilez ematen duten irudia aplikatzen diete, eta ia frankista ez dena, idiota desinformatu bat da, PPkoa edo PSOEkoa, Katalunian izan ezik. Neurri batean Solen, Madrilen bihotzean, hasi den mugimenduaren aurreko erreakzio batzuk antzekoak iruditu zaizkit, oraindik “etsaia”z egiten den karikatura buruan.

DANI BLANCO



Ixene Apaolaza



Padrón



Sarasola

M15aren harira bete zait orrialdea artikulu honen lehenengo bertsioan, baina nire irakurle potentzialetan pentsatu dut (nire lagunak eta familia, ordena horretan), eta erabaki ezin diedala hori egin, mugimenduaren lehenengo momentuko email bonbardaketek propagandaren mugak sobera pasa baitzituen, eta gainera bozeramaile gehiegi atera zaizkie, oraindik, hau idazten ari naizenean, aldarrikapenik adostu gabe dagoenean. Plazer tonto pare bat eman didate niri, extra pare bat, eguna alaitzen dizutenetakoa. Madrilen Auzitegi Nazionaletik harago ezer gutxi zegoela pentsatzen zutenen aurrean argudio korapilatsuegiak eman behar ez izatea bat, gero ateratzen dena aterata, ikusi nahi zuenak ikusi baitu hasieran hurbildu ziren pertsona askoren maila, eta berdin “gaur egungo gazteak” hasten diren esaldien zale diren askoren aurrean.

Periodikoen bertsioz eta partiduetatik harago, batzuei sinestea kostatzen bazaie ere, jendea dago, eta horretaz ez ohartzeak kalte handien eskuinetik ezkerretara egon nahi duten partiduei egin die, Espainian gainera akanpaden pista zutenean. Europako herrialde ezberdinetako hauteskundeetako emaitzak ikusita, askok erabaki du ezker politikek krisiari aurre egiteko erakutsitako ezintasunak medio irabazi duela eskuinak. Eta nik oraindik ez dakit ezkerreko zein politikaz ari diren; denetan galdu dutenak ezkerreko partiduak dira, eskuina ez da hainbeste igo. José Blancok hauteskundeetako emaitzak jakin ondoren esan zuen gizartea aldera doala, eta politikaria ez balitz ironikoki ari zela pentsatuko nuke. Ez dakit norbaitek kalte gehiago egin dion ezkerreari ezkerreko partidu direla diotenek baino, hitza bera isildu behar izan da esan nahi zuenaren antzeko zerbait egiteko. ■



José Blancok hauteskundeetako emaitzak  
jakin ondoren esan zuen gizartea  
orokorrean eskuin aldera doala,  
eta politikaria ez balitz ironikoki  
ari zela pentsatuko nuke

